PRINTZE TXIKIA

Egunero zerbait ikasten nuen haren planetaz, irteeraz, bidaiaz. Hori guztia apurka-apurka zetorren, gogoeten haritik. Hala gauzak, hirugarren egunean baobaben zorigaitza ezagutu ahal izan nuen.

Oraingoan ere arkumeari esker gertatu zen, izan ere, zalantzak jota, printze txikiak honela galdegin baitzidan:

–Arkumeek zuhaixkak jaten dituzte, ezta?

–Bai. Hala da.

–A! Pozik nago.

Ez nuen ulertzen zergatik zen hain garrantzitsua arkumeek zuhaixkak jatea. Baina printze txikiak gaineratu zuen:

–Beraz, baobabak ere jango dituzte?

Printze txikiari argitu nahi izan nion baobabak ez zirela zuhaixkak, elizak bezalako zuhaitz altuak baizik, eta, berarekin elefante talde bat eramango balu ere, elefanteek ezin izango luketela hura azpiratu.

Elefante taldearen ideiak irria eragin zion printze txikiari.

–Bata bestearen gainean jarri beharko lirateke...

Baina zuhurtasunez ohartarazi zidan:

–Baobabak ere txikiak dira handi egin aurretik.

–Halaxe da! Baina zergatik nahi duzu zure arkumeek baobab txikiak jatea?

Begien bistako zerbait balitz bezala, erantzun zidan: "Nola ez, ba!". Eta burua asko nekatu behar izan nuen arazo hura neure gisara ulertu ahal izateko.

Jakina, printze txikiaren planetan, gainerako guztietan bezala, belar onak eta txarrak zeuden. Eta, jakina, belar onen hazi onak eta belar txarren hazi txarrak. Haziak ikusezinak dira, ordea. Lurraren sekretupean lo egoten dira, harik eta esnatzeko gogoa etortzen zaien arte. Orduan, haziak nagiak atera eta, aurrena lotsaturik bezala, eguzkirantz luzatzen du bere kimu ahula. Arrosondo kimua izanez gero, bere gisara hazten utz daiteke. Baina landare txar bat baldin bada, ernatzen ikusi bezain laster erauzi, hots, erroetatik atera behar da. Eta printze txikiaren planetan hazi beldurgarriak zeuden..., baobab haziak. Planetako lurra bete-beterik

LIVEWORKSHEETS

zegoen. Eta baobab bat garaiz erauzten ez baldin bada, beranduegi izan daiteke. Traba egiten dio planeta osoari. Bere erroek dena zulatzen dute. Eta planeta txikiegia eta baobabak handiegiak baldin badira, leherrarazi egiten dute.

"Diziplina kontua da", esan zidan geroago printze txikiak. "Goizean zeure burua garbitutakoan, kontu handiz ekin behar diozu planeta bera garbitzeari. Oso gazteak direnean, baobabak eta arrosondoak elkarren antz-antzekoak direnez, sarritan saiatu beharra dago biak ongi bereizten eta baobabak erauzten. Oso lan aspergarria da, baina oso erraza".

Eta hori guztia ni bizi naizen tokiko haurrei ulertarazteko, egun batez marrazki eder bat egiten saiatzeko aholkatu zidan. "Egunen batean bidaian joaten badira", esan zidan, "baliagarri izango zaie. Batzuetan ez dago arazorik lana beste baterako uzteko. Baina baobaben kasuan, hondamendia etor daiteke. Behin batez, alfer bat bizi zen planeta bat ezagutu nuen. Hiru zuhaixka bertan behera utzi zituen eta..."

Eta printze txikiaren oharrak kontuan harturik, marraztu egin nuen planeta hura. Ez naiz moralisten mintzamoldearen zalea. Baina baobaben arriskua hain da ezezaguna, eta asteroide batean galtzea hain izan daiteke arriskutsua, behingoz salbuespena egitea erabaki baitut. Eta diot: "Haurrok! Kontuz baobabekin, gero!". Eta, nire antzera, ene lagunek aspaldidanik zuten arrisku ezezagun horren berri emateko asmotan, lan handia egin nuen marrazki harekin. Eman nien lezioa kontuan hartzekoa zen. Beharbada, zeuen buruari galdegingo diozue: "Zergatik ez ote dago liburu honetan baobabena bezain marrazki handiosik?". Erantzuna oso erraza da: saiatu, saiatu naiz, baina lortu ez. Baobabak marraztu nituenean, presazko sentimendu batek bultzaturik jardun nuen.

Antoine de Saint-Exupéry, *Printze txikia* (moldatua)

LIVEWORKSHEETS

1. **Narrazioak kontatzen digunez, baobabak dira:**

   A. Planeta jakin batzuetan eta noiz edo noiz Lurrean hazten diren landare espezieak.

   B. Arrosondoen antzeko zuhaixkak, hau da, arantzak dituzten landareak, batzuetan tamaina handia hartzen dutenak.

   C. Tamaina handiko zuhaitzak, hazten direnean sustrai indartsuak dituztenak.

   D. Tamaina handiko landare espeziea, galzorian dagoena eta, beraz, diziplinarekin eta arreta handiarekin zaindu behar dena.

2. ***Printze txikia*ren kapitulu honetan, baobabak berez sinbolo bat dira eta honako hau irudikatzen dute:**

   A. Gizakien jarrera negatiboak, gure bizitzan indar handiz sustraitzen direnak.

   B. Pertsonen umore txarra, haien zakartasuna.

   C. Gure gizartean dauden ohiturak.

   D. Pertsonen jokabidea definitzen duten legeak eta arauak.

3. **Zer ondorio ditu alferkeriak, narrazioaren arabera?**

   A. Baobabak hondatzen ahal direla arretaz zaintzen ez badira.

   B. Alferkeriaren aurka borroka egitea neketsua dela, eta ezinezkoa dela hura gainditzea.

   C. Ahalegintzea eskatzen duten gauzak gerorako uzten direla eta gero ez direla garaiz egiten.

   D. Gauzak azken ordurako uzteak laguntzen dizula bizkorragoa izaten eta zereginak arreta handiagoarekin eta hobeto egiten.

4. **Testuak animatzen gaitu ... izatera.**

   A. maltzurrak

   B. alferrak

   C. espontaneoak

   D. arduratsuak

5. **Nork ikasten zuen planetari buruz zerbait egunero?**

   A. Narratzaileak.

   B. Printze txikiak.

   C. Planetaren jabeak.

   D. Planetako haurrak.

LIVEWORKSHEETS

6. **Zer gertatzen da baobab bat ez bada garaiz erauzten, erroetatik ateratzen?**

.....

.....

7. **Zertan lagunduko dio arkumeak printze txikiari?**

A. Ondoan izanen du, konpainia egiten.

B. Bere artileak beroa emanen dio.

C. Planeta garbituko du printze txikiarekin batera.

D. Lagun bat izanen du hitz egiteko.

8. **Zer gertatuko litzateke printze txikiaren planetan pertsona alfer bat bakarrik biziko balitz?**

A. Haziz beteko litzatekeela.

B. Kutsatuko litzatekeela.

C. Norbaitek konkistatuko lukeela.

D. Lehertuko litzatekeela.

9. **Printze txikiak baobabei buruz esaten duenari dagokionez, zein da atsotitzik egokiena?**

A. "Zuhaitz onak, itzal ona".

B. "Biharko ez utzi, gaur egin ahal dena".

C. "Katu bat akabatu, bestea ekarri, xaguentzat berdin".

D. Aurreko bat ere ez.

10. **Zer esan nahi du esapide honek: *"harik eta esnatzeko gogoa etortzen zaien arte"?***

A. Hazi bat kasualitatez lur emankorrean erortzen dela.

B. Hazi bat ernatzen dela eta landarea jaiotzen dela.

C. Denbora luzea igaro ondoren, landare bat haziak ematen hasten dela.

D. Lurpeko hazi bat biltzen duela nekazariak.

LIVEWORKSHEETS